


ARRETAZ ENTZUN

ERANSKINETEN KITA

kanpainaren gidan azaltzen diren jardueren
garapena errazteko eta ikastetxeetan
entzute aktiboa sustatzeko





Arretaz Entzun kita

Arretaz Entzuteko kita. Arretaz Entzun gidan azaltzen diren jardueren garapena errazteko eranskinen kita.

Lehenbiziko edizioa: **2020**

© **Educo**

Baimenduta dago lan hau osorik edo zati batez erreproduzitzea, edozein dela bitartekoa edo prozedura, betiere iturria aipatzen bada eta helburu komertzialik ez badu.

Testuak: Gema Luengo, Montse Bobés, Juanvi Plaza, Miriam Torán, María Millán

Itzulpena: Marina Balenciaga

Sormen zuzendaritza eta maketazioa: Elena Martí, Anaïs López eta Marina Balenciaga

Ilustrazioak: Eduard Altarriba

Kanpainaren koordinazioa: Juanvi Plaza


Esker onak: Cipó Company-ri, egindako sormen-lanagatik eta emandako ideiegatik, bai eta kanpainaren garapenean erakutsitako ardura eta profesionaltasunagatik ere.

Arretaz Entzun materialaren kontsulta egiteko: <https://www.activaescucha.org>

Dokumentu honetan landutako gaietako informazio gehiago nahi izanez gero, hauek dira harremanetarako helbideak: educO@educO.org edo info@activaescucha.org



Guri buruz



Educo garapenerako lankidetza globalean oinarritzen den GKE da. Hezkuntza eta haurren babesa ditu helburutzat eta 800.000 neska-mutiko baino gehiagok parte hartzen duten proiektuak lantzen ditu 13 herrialdetan.

Educok, azken urteotan, bere jarduerak gehitu egin ditu **Espainian, haurren ongizateari eta eskubideei buruzko gaitan erakunde garrantzitsua bihurtuz.**

Haurren egoeraren inguruko ikuspuntu globala daukagu eta **ikerketarekin, parte-hartzearekin, eragin politikoarekin eta herritarren mobilizazioarekin lotutako ekintzak** bultzatzen ditugu.

Gure lanaren **funtsa neska-mutikoei eta nerabeei laguntzea da**, tratatu oneko eta aldaketara bideratutako giroak sustatuz indarra har dezaten, indarkeriarik gabeko inguruetan haien eskubideak bete daitezen, eskubide horiek haiek aintzat har ditzaten eta **herritartasuna aktiboki lantzen duten pertsona gisa haz daitezen**. Hori guztia **ikastetxeen, gizarte erakundeen, administrazio publikoaren eta haurren aldeko eta lankidetzako plataformen eskutik, baita hurrekin lotutako beste entitateen bitartez ere.**

HITZAURREA

Educon ENTZUTE AKTIBOAK neska-mutikoengan eta nerabeengan dituen eraginak zein diren jakin nahi izan dugu. Hori dela eta, Arretaz Entzun kanpainari ekin diogu, hezkuntzan entzuteko modua hobetzeko ekintzak bultzatzen dituzten hainbat baliabideren eta materialen bitartez. Kanpaina Lehen eta Bigarren Hezkuntzetako ikastetxeei zuzenduta dago batik bat, belaunaldien arteko partaidetzaren ikuspuntutik irakasleen eta ikasleen (11-14 urtekoak, gehienbat) artean lantzeko.

Arretaz Entzun kita Arretaz Entzun gidaren material osagarria da.

Hasteko, Arretaz Entzun kanpainaren edukiei buruzko oinarritzko informazioa azaltzen duten 5 fitxa biltzen ditu, entzute aktiboa ikuspuntu desberdinetatik lantzen dutenak: biologikoa, harremanena, gizarte-hezkuntzarena, haurren eskubideena, biztanleria osoarena, etab. Horiez gain, kanpaina garatzeko planteatzen diren fase bakoitzean hainbat jarduera egiteko proposamen zehatzak ematen dituzten 15 fitxa ere baditu: parte-hartzearen antolaketa, motibazioa eta komunikazioa komunitatean, hasierako egoeraren diagnosia eta analisia, ekintza planak abian jartzea eta ebaluazio jarduerak. Gainera, hausnarketa egiteko zenbait dinamika ere proposatzen dira: jolasak, tailerrak, aztertze eta ebaluatze fitxak, etab.

Material hori inprimatu eta ikasleei eman ahal zaie, eta eskuragarri egongo da Arretaz Entzun web-plataforman: <https://activaescucha.org/>



Arretaz Entzun kitean azaltzen diren jarduerak egiten hasi aurretik, Arretaz Entzun gida irakurtzea aholkatzen da, ekintzak abian jartzeko testuinguruak eta gomendioak gogoan izateko. Beheko taularen bidez aurkezten dira Arretaz Entzun gidan proposatutako jarduerai eta kanpainako faseei dagozkien Arretaz Entzun kiteko fitxak:

Fasea Garapena	Jarduera Arretaz Entzun gida	Fitxa Arretaz Entzun kita
 1.FASEA INFORMAZIOA ETA ENTZUTE KLUBAREN ANTOLAKETA	1.A Hasi aurretik... irakurri, pentsatu eta entzun	1. FITXA ENTZUTZEA ETA ARRETAZ ENTZUTEA EZ DIRA GAUZA BERA... AURKITU DESBERDINTASUNAK
	1.A Hasi aurretik... irakurri, pentsatu eta entzun	2. FITXA ENTZUTE AKTIBOAREN OSAGIAK
	1.A Hasi aurretik... irakurri, pentsatu eta entzun	3. FITXA ENTZUTEA... ESKUBIDE KONTUA DA!
	1.A Hasi aurretik... irakurri, pentsatu eta entzun	4. FITXA NESKA-MUTIKOEN ETA NERABEEN AHOTSAK MUNDUAN
	1.A Hasi aurretik... irakurri, pentsatu eta entzun	5. FITXA ZER LORTZEN DUGU ENTZUTE AKTIBOAREKIN?
	1.B Talde-lanean, gehiago lortuko dugu: Entzute Kluba sortzea	6. FITXA ENTZUTE KOMUNITATE BATERAKO BIDE-ORRIA
	1.B Talde-lanean, gehiago lortuko dugu: Entzute Kluba sortzea	7. FITXA ZURI ENTZUTEKO GAUDE!: "ENTZUTE KLUBA"
 ZEHARHAKO FASEA MOTIBAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA	T.A Entzutearen artea ereingo dugu!	8. FITXA ENTZUTEAREN ARTEA EREINGO DUGU!
	T.B Entzuten entrenatuko gara!	9. FITXA IKUSPUNTU HAUEKIN ADOS ZAUDETE?
	T.B Entzuten entrenatuko gara!	10. FITXA KONTATZEN DIZUTENA MARRAZTEN AUSARTZEN ZARA?
	T.B Entzuten entrenatuko gara!	11. FITXA BADA KIZU NOLA SENTITZEN NAIZEN?
	T.C Ikusi, irakurri eta entzun!	12. FITXA DISEINATU KANPAINARAKO ZURE MATERIALA
	T.E Entzuteko txokoa, partekatze leku	13. FITXA ENTZUTEKO POSTONTZIA EGITEA
 2.FASEA DIAGNOSIA ETA ANALISIA	2.A Entzuteko moduaren testa, elkar hobeto ezagutzeko unea	14. FITXA ENTZUTEKO MODUAREN TESTA. IKASLEAK
	2.A Entzuteko moduaren testa, elkar hobeto ezagutzeko unea	15. FITXA ENTZUTEKO MODUAREN TESTA. IRAKASLEAK
	2.A Entzuteko moduaren testa, elkar hobeto ezagutzeko unea	16. FITXA ENTZUTEKO MODUAREN TESTA. FAMILIAK
	2.D Aldaketak planifikatzeko mapa	17. FITXA AMESTEN AUSARTZEN ZARA?... BA HAS GAITEZEN!
 3.FASEA EKINTZA	3.C Testu idatzien bidez entzun diezaguten, batzuetan idatzi baino zerbait gehiago egin behar da	18. FITXA FANZINE BAT EGITEA: TESTU IDATZIEK BIDEZ HITZ EGITEKO
 ZEHARHAKO FASEA EBALUAZIOA	TE.A Identifika dezagun zer ikasi dugun entzutearen bidez. Oraindik ere egiteko daukaguna	19. FITXA ENTZUTEA ERREGISTRATZEA: ENTZUTE-JARRERA
	TE.B Entzuteko moduaren testa. Aldaketaren ebaluazioa	20. FITXA ZER HOBEKUNTZA LORTU DITUGU DENBORA HONETAN?

Entzute komunitateak osatzen laguntzeko material oso baliagarria izango dela espero dugu

LANERAKO FITXAK



ENTZUTEA ETA ARRETAZ ENTZUTEA EZ DIRA GAUZA BERA... Aurkitu desberdintasunak

Kanpoko
belarria

Barneko belarria




Erdiko
belarria

Entzutea

- » Biologikoa da
- » Entzumenari bakarrik eragiten dion prozesua da

Afektua

Ongizatea



Errespetua

Arretaz entzutea

- » Kulturarekin lotuta dago
- » Zentzumen guztiei eragiten dien prozesua da



Benetan entzutea **modu aktiboan entzutea** da eta horretarako belarria baino zerbait gehiago behar da: entzuten ari garen pertsonarekiko **errespetuzko, afektuzko** eta **ardurazko** sentimenduak ditugu. Gure pentsatzeko eta jokatzeko eran **aldaketak** egiteko **jarrera irekia** eduki behar dugu.

ENTZUTE AKTIBOAREN OSAGIAK

- ☐ Prestasuna eta alde aurretiko jarrera
- ☐ Zer pentsatzen duen, nola sentitzen den... jakiteko nahia
- ☐ Errespetua
- ☐ Berdintasunezko eta pribilegiarik gabeko tratua
- ☐ Adinak, generoak, jatorriak, dibertsitateak... ez daukate eraginik
- ☐ Afektua, maitasuna, samurtasuna
- ☐ Beharren adierazpena
- ☐ Enpatia, bestearen lekuan jartzea
- ☐ Sentsibiltatea eta sentimenduen kontzientzia
- ☐ Ahozko komunikazioa ez denarekiko arreta (espresioak, gorputz-jarrerak, ahotsaren tonuak...)
- ☐ Isiltasunen interpretazioa
- ☐ Ez epaitzea
- ☐ Aztertzea eta memorizatzea
- ☐ Egia esatea
- ☐ Indarkeriarik gabeko komunikazioa
- ☐ Hizkera ez sexista, ez arrazista, ez heldutista
- ☐ Ulertu duguna adieraztea
- ☐ Ulermena
- ☐ Esanahien analisia
- ☐ Hasierako ideiak aldatzeko jarrera irekia
- ☐ Loturak eta sinesmenak alde batera uztea
- ☐ Beste pertsona aintzat hartzea
- ☐ Akatsak aitortzea
- ☐ Askatasuna
- ☐ Solasaldian buru-belarri egotea
- ☐ Konfiantzazko giroa
- ☐ Kritika konstruktiboa
- ☐ Umiltasuna
- ☐ Sormena
- ☐ Ideia berriak eratzea eta trukatzeko
- ☐ Konpromisoa



ENTZUTEA... ESKUBIDE KONTUA DA!

Arretaz entzutea Haurren eskubideei buruzko konbentzioan (1989) aipatzen da.

Honela dio 12. artikulua: «1. Estatu alderdiek haurrei eskubidea bermatuko diete, askatasunez euren iritzia emateko, haurrengan eragina duten gai guztien inguruan, betiere, haurrak gai badira iritzi hori askatasunez emateko; haurren iritzia behar bezala kontuan hartuko dira, haurren adinaren eta heldutasunaren arabera. 2. Horretarako, haurrei modu berezian emango zaie aukera, eurek esan beharrekoa entzun dadin, haurrei buruzko prozedura judizial eta administratibo guztietan».

Entzute aktiboa ez da testu baten edo irakaslearen azalpenen bitartez ikasten, baizik eta elkarriketa eta parte hartzea sustatzen duen benetako giroan lantzen da.



*Kontuan izan gure iritzia gure beharrak egia bihur daitezen
Solasaldirako beharrezkoak diren denborak eta guneak bilatu
Pentsatzen eta sentitzen duguna jakiteko erremintak aurkitu
Protektionismoa gaingitu eta gure autonomia bultzatu
Benetako berdintasunezko elkarriketa ezarri: askatasunaren eta
elkarrenganako errespetuaren bitartez
Arazoei konponbideak aurkitzeko elkarlana eska diezagukezue
Gure gaitasunetan sinetsi
Ez saiatu gure pentsatzeko, sentitzeko, jokatzeko moduak kontrolatzen
Ikasteko gidatu eta lagun gaitzazu, baina botererik ezarri gabe
Ez jokatu heldutista moduan eta ez erabili espresio heldutistak ??*

**Has gaitezen
talde lanean!**

HELDUZENTRISMOA: urte gutxiago izateagatik bakarrik neska-mutikoen eta nerabeen gaitasunak mugatu eta zalantzan jartzen dituen edozein jokaera, ekintza edo hizkera. Hori gaingiditza umiltasuna, aitorpena eta errespetua eskatzen ditu.



Hasi aurretik... irakurri, pentsatu eta entzun

NESKA-MUTIKOEN ETA NERABEEN AHOTSAK MUNDUAN

Educok lan egiten duen herrialdeetako haurren partaidetza-egituren adibideak:

Guatemalan, neska-mutikoei arretaz entzuten zaie festak antolatzen dituzten batzordeetan, komunitateetako kontseiluetan eta haien herri eta hirietako eskola batzarretan.

Malin ez dago haurren parte-hartze komunitariorik, baina bai herrialdeko zenbait departamenduetako neska-mutikoen ordezkariak biltzen dituen Haurren Parlamentua.

Bangladeshen National Children's Task Force erakundeak legeen, politiken eta Gobernuak abiarazitako ekintzen eraketari buruz iritziak ematen dituzten neska-mutikoak ordezkatzan ditu.

El Salvadorren ia ez dago haurrek parte har dezaketen gunekomunik. Nazio-mailan Nerabeentzako Aholku-Kontseilua ezarri da, hainbat departamenduetako ordezkariekin.

Burkina Fason bada estatu-mailako Haurren Parlamentua, herri ekintzekin koordinatzen dena, hala nola haurren klubekin ("Deen Kan Kluba"), ikastetxeetako eskola-batzordeekin eta Haurraren Garapenerako Herri Kontseiluekin.

Filipinetan ikastetxeek ikasleen batzordeak dituzte, non ikasleei balio demokratikoak erakusten dizkieten eta haiek curriculumeko jardueren antolaketan parte hartzera bultzatzen dituzten.



Baina badaude entzunak izatea lortu duten neska-mutikoak, nerabeak eta gazteak ere!

Munduko leku desberdinetan, Latinoamerikan batik bat, **neska-mutiko eta nerabe langileak** beren eskubideen alde egiteko elkartzen dira. Ziur ezagutzen duzula gizarte- eta klima-justiziaren aldeko **#FridaysForFuture** (Gazteak klimaren alde) mugimendua.

Hona hemen ingurumena, bakea eta giza eskubideak defendatzen dituzten neskato, nerabe eta gazte aktibisten mundu osoko adibideak: Greta Thunberg (Suedia), Licypriya Kangujam (India), Vanessa Nakate (Uganda), Malala Yousafzai (Pakistan), Amika George (Erresuma Batua), Payal Jangid (India), Melati eta Isabel Wijsen (Bali), Emma González (AEB), Autum Peltier (Kanada), Zulaikha Patel (Hegoafrika), Jazz Jennings (AEB), Marley Dias (Jamaika), Sonita Alizadeh (Afganistan), Ahed Tamimi (Palestina)... Eta denak emakumeak!!! Beren arrazoiak zein diren ezagutzera bultzatzen zaitugu.

Hasi aurretik... irakurri, pentsatu eta entzun

ZER LORTZEN DUGU ENTZUTE AKTIBOAREKIN?

- ... autoestimua indartzen da
- ... hizkuntza estimulatu da
- ... bi noranzkoko komunikazioa bultzatzen da
- ... informazio garrantzitsua lortzen da
- ... ezagutza eta erreferentzia kulturalak zabaltzen dira
- ... pentsamendu kritikoa, begirunezkoa eta sormenezkoa sustatzen da
- ... ikasi egiten da
- ... adiskidetasuna eta harreman onak lantzen dira
- ... berdintasunerako eta botere-banaketarako bidea bultzatzen da
- ... giro baketsua lortzen da
- ... erabaki hobeak hartzen dira (norbanakoak eta taldeak)
- ... lankidetzak eta berrikuntza sustatzen dira
- ... bizikidetzak demokratikoa errazten da

“ eta haurren eskubideak
betetzen laguntzen da ”



Entzutea aktibatzeraz animatzen zara?

Laguntzea nahi baduzu,
informazio gehiago aurki
dezakezu webgunean:



activa la escucha.org

Zure hezkuntza-komunitatean honengatik galde dezakezu:

ENTZUTE KOMUNITATE BATERAKO BIDE-ORRIA

1.FASEA

Entzute Kluba

Ikaslez eta irakaslez (edo hezkuntza-komunitateko beste pertsona heldu batzuez) osatutako Entzute Kluba sortu.

2.FASEA

Diagnosia eta analisia

Parte hartzen duen taldearen eta/edo hezkuntza-komunitatearen hasierako egoera ezagutu.

3.FASEA

Ekintza

Entzute aktiboa sustatzeko eta hark duen garrantziari buruz sentibilizatzeko jarduerak.

4.FASEA

Ospakizuna

Ikasitakoa eta lortutako hobekuntzak partekatu eta ospatu.

ZEHARRAKO
FASEA

Ebaluazioa: prozesuan lortutako emaitzak eta aurrerapenak jakiteko.

Motibazioa eta komunikazioa: "Arretaz Entzun" kanpainari buruzko motibazio eta komunikazio jardueren garapena hezkuntza komunitatean.

NOLA ANTOLATUKO GARA?



Zer fasetan gaude?



Zer ekintza nahi dugu egin?



Nor arduratuko da?



Nori bideratuta daude ekintzak?



Noiz egingo dugu ekintza hau?



Zer baliabide eta prestaketa behar ditugu?

Talde-lanean, gehiago lortuko dugu: Entzute Kluba sortzea

ZURI ENTZUTEKO GAUDE "Entzute Kluba"!

Hemen Entzute Klubaren irudia itsats dezakezue
(taldeko argazkia, avatarrak, autorretratuak...)

burmuina pentsatzeko!

ahoa hitz egiteko!

bihotza maitatzeko!

belarriak entzuteko!

begiak begiratzeko!

tripak sentitzeko!

eskuak elkarlanean aritzeko!

oinak laguntzeko!

ARRETAZ ENTZUTEKO BELARRIA BAINO
ZERBAIT GEHIAGO ERABILIKO DUGU!



Entzutearen artea ereingo dugu!

ENTZUTEAREN ARTEA EREINGO DUGU!

Zuen gustuko landare-etiketak sortu eta ikastetxean oreganoa ereiteko eguna antola dezakezue.

Oreganoa

Izen zientifikoa: Origanum vulgare

Esanahia: "Mendietako alaitasuna"

Noiz ereintzen da?: udazkenean edo udaberrian

Zer behar du?: argia eta gutxi ureztatzea

Erabilera nagusiak: hostoak eta loreak arnas hodiarekin lotutako gaixotasunentzako (otitisa, asma, eztula) eta urdaileko minentzako infusioak egiteko

Oreganoa


Izen lagunkoia: "Ikastetxeetako alaitasuna"

Noiz ereintzen da?: entzute komunitate bat hasteko nahiarekin pertsona talde arduratsua biltzen denean

Zer behar du?: parte hartzea, konpromisoa, sormena, afektua, adiskidetasuna, elkartasuna

Erabilera nagusiak: Entzute Aktiboa, Hezkuntza, Bizikidetzatza, Herritartasuna


Egin landareentzako etiketak berrrerabilitako materialarekin



Lurrean sartzeko alde zorrotz bat duen etiketa marraztu.



IKUSPUNTU HAUEKIN ADOS ZAUDETE?




- | | | |
|-----------------------|--|-----------------------|
| ☐ | "Haurrek, helduek hitz egiten dutenean: entzun, ikusi eta isildu egin behar dute." (Topiko heldutista) | ☐ |
| ☐ | "Komunikazioan, garrantzitsuenak esaten ez dena entzutea da." Peter Ferdinand Drucker | ☐ |
| ☐ | "Benetan maite zaituenak negar eginaraziko dizu." (Atsotitz herrikoia) | ☐ |
| ☐ | "Orain dena matxismoa da, gehiegizkoa, ezin da txiste bat ere egin." (Topiko matxista) | ☐ |
| ☐ | "Ez zaitez hitz egiteko txandaren zain egon: entzun benetan eta desberdina izango zara." Sir Charles Chaplin | ☐ |
| ☐ | "Beltz batek bezala lan egin' gisako atsotitz herrikoiak erabiltzeagatik ez naiz arrazista." (Topiko arrazista) | ☐ |
| ☐ | "Emakume baten 'ezetzak' hau esan nahi du: 'erregutu iezadazu pixka bat gehiago.'" (Topiko matxista) | ☐ |
| ☐ | "Entzuten ari denaren interesak hitz egiten ari denaren mihia estimulatzeko du." Charlotte Bronte | ☐ |
| ☐ | "Hitz egiten jakiteko beharrezkoa da arretaz entzuten jakitea." Plutarco | ☐ |
| ☐ | "Ez da garrantzitsua esaten dena entzutea, baizik eta pentsatzen dena asmatzea." Juan Donoso Cortés | ☐ |
| ☐ | "Erdizka bakarrik entzuten du zati bat bakarrik entzuten duenak." Esquilo de Eleusis | ☐ |
| ☐ | "Ez da inoiz gauza bera egia norberak bilatzea edo egia beste norbaiti entzun behar izatea." Aldous Leonard Huxley | ☐ |
| ☐ | Entzute aktiboarekin lotura duten eta ezagutzen dituzun beste aipu, atsotitz edo topiko herrikoiak: | ☐ |

ZERGATIK?

(Arrazoitu zuen ikuspuntua)

Besteen arrazoiek konbentzitzen bazaituzte, iritziz alda dezakezu...
Ongietorria izan dadila aldaketarako eta ideia berriak elkarlanean eratzeko jarrera irekia!

KONTATZEN DIZUTENA MARRAZTEN AUSARTZEN ZARA?



Artelanez zentzumenen bitartez entzun eta arrazoitzearen bidez interpreta ditzakegun gauzak kontatzen dizkigute... Honako horma-irudi hau erabiltzera bultzatzen zaituztegu, ikusten duzuen hitzen bidez azaltzen saiatzeko (beste autoreren bat ere aukera dezakezue, edo irudi surrealista bat asmatu eta marraztu). Azaldu bitartean, beste pertsona bat esandakoa marrazten saiatuko da, jatorrizko irudia ikusi gabe eta haren autorea zein den jakin gabe. Amaitutakoan: **alderatu irudiak eta adierazi nola sentitu zareten!**

Koadroa deskribatuko duen pertsonak


Elementuak ordenatuko eta zerrendatuko ditu; formak eta koloreak deskribatuko ditu; bereizitasunak zehaztuko ditu; konparaketak egingo ditu; horma-irudiak sorrarazten dituen sentimenduak adieraziko ditu...

Marrazten duen pertsonak

Isilik marraztuko du, azalpenak arretaz entzunez. Jarduera amaitutakoan, marrazkia osatzeko galderak egin ahalko ditu: *Zer ikusten duzu ezkerreko/beheko... zatian? Zer sentitzen duzu? Zer ordenatan agertzen dira elementu hauek? Irudika dezakezu zer pasatu den? Baliteke...? Zer esan nahi duzu hori diozunean? Esaten ari zarenaren adibiderik jartzerik bai? Zer-nolako lotura dute...? Zertan desberdintzen dira? Elementu hauekin taldeak egin ditzakegu? Zergatik uste duzu...? Zer ondoriozta dezakegu? Hori horrela bada, hau honela izango da? Zati bakoitza... bada, irudia osotasunean ere horrela izango da? Nola lor dezaket hori egitea? Esaten duzunak hau esan nahi du? Zer kanta edo poemarekin lotuko zenuke irudia? Nola azalduko zenuke hitz gutxitan? Zer kolorek azalduko zuen ongien...?*

BADAKIZU NOLA SENTITZEN NAIZEN?


Emozioen gurpila egitera animatzen zaituztegu (Robert Plutchik psikologoak proposatutako Emozioen Gurpilaren bertsio egokitua) eta emozio desberdinak interpretatzen jolastera.



Borobila eta
gezia moztu.



Borobilaren erdian eta
geziaren izkina batean
zuloa egin puntzoi
batekin.



Metalezko edo plastikozko
zirrindola emozioen gurpilaren
eta geziaren artean jarri eta dena
txintxeta ireki batekin lotu.

Jolasteko

Talde osoa borobilean eta zutik. Borobiletik kanpo dagoen pertsona batek geziari bira eginaraziko dio besteek ikusi gabe eta borobilera sartuko da gorputz-mugimenduekin geziak seinalatu duen emozioa adieraziz eta TOMATEA! hitza esanez. Gainerakoek, hitz horren, aurpegieren eta gorputz-mugimenduen bitartez, ea zer emozio adierazten saiatu den asmatu beharko dute. Hainbat alditan jolas daiteke, pertsona desberdinek gezia biraraziz. Amaitzean, espresatzeko eta besteen emozioak ulertzeko zailtasunei buruz hitz egin daiteke. Jolasean agertu diren emozioak bizitzako beste egoeretan sentitu izan badira, momentu horiei buruz ere hitz egin ahal da.

Ikusi, irakurri eta entzun!

DISEINATU KANPAINARAKO ZURE MATERIALA

Zuen inguruan entzutea aktibatzeke mezuak sortzera bultzatzen zaituztegu... Diseinatu munduari erakusteko txantiloiak, txartelak eta eranskailuak! Kanpainarako zuen materiala sortzen ongi pasatuko duzue eta nahi duzen tamaina eta formetara egokitu ahalko duzue gainera.

TXANTILOIAK

- 1 Idatzi edo marraztu, kartoi mehe edo berrerabilitako kartoi batean, mezuak eta logoak, kontuan izanez letra batzuk barruan hutsunea daramatela (adibidez, A letra).



- 2 Txantiloia egiteko, kartoi mehea ohol baten edo material gogorreko zerbaiten azpian jarri eta ez dadila irristatu, azpiko gainazalari kalterik egin gabe kontu handiz moztu behar baitira mezuaren formak.



- 3 Txantiloiak erakutsiko den gainazalean jarri. Hutsuneak bete klariona erabiliz edo pintura pintzel edo arrabola batekin emanez. Produktua likidoa bada, hainbat txantilo egin beharko dira, bustita badaude lehenago hondatzen baitira.

ESCUCHA

"STENCIL"
LETRA MOTAREN
ADIBIDEAK

ABCDEFGHIJKLMNOPQRSTUVWXYZ
ABCDEFGHIJKLMNOPQRSTUVWXYZ

ERANSKAILUAK

- 1 Kartelak diseinatu kanpainarako aukeratutako esloganekin.





- 2 Itsasteko materiala prestatu: berrerabilitako ontziak, ozpina, kola, pintzela eta koilarak.

- 3 Berrerabilitako ontzi batean ozpina eta kola nahastu koilararekin.

- 4 Kartelaren alde bat nahasketarekin busti eta ea informatzeko eta sentsibilizatzeko (kartelak jartzeko) zein den lekurik onena erabaki.



KRAFT TXARTELAK



- 1 Inprimatuta ezer ez daukaten erabilitako kartoiak eskuratu, baita artilea, sokak edo goma elastikoak ere.





- 2 Kartelak, forma eta tamaina desberdinetako etiketak eta kartoiak moztu.

- 3 Esloganak idatzi edo kanpainaren logoa marraztu.

- 4 Txartelak jarri ateen heldulekuetan, zuhaitzen adarretan edo bainugelako iturrietan, esate baterako.

ENTZUTEKO POSTONTZIA EGITEA


Postontzi batek komunitatearen ideiak biltzea ahalbidetzen du Entzuteko Postontziaren bitartez. Berrerabilitako materiala erabiliz egin daiteke, adibidez, kartoi kaxekin, eta hainbat forma emanaz "tuneatu" daiteke. Esate baterako, naturaren ukitua eman ahal zaio entzumenaren zentzumena oso garatuta daukaten animaliak imitatuz, eta ikastetxeko txikienak entzutera bidera daiteke; edo ukitu modernoagoa ere eman ahal zaio telefono mugikor erraldoi baten itxura emanez, non mezuak (iradokizunak) sartu ahal diren pantailan (zuloan).



Entzuteko Postontzia animalien formarekin


Ikertu ea zein animaliak daukaten ongien garatuta entzumena edo orientazioa. Adibidez: abaraska-sits handia, elefantea, saguzarra, izurdea, txakurra, hontza, arratoia, zaldia edo usoa.

Entzuteko Postontzia telefono mugikorraren formarekin



Kasu honetan, mezuak mugikorraren forma duen kaxa-postontzian utz daitezke. Iragarki-taula bat ere izan dezake ondoan, *tablet* bat izango balitz bezala, non mezuak eta proposamenak jarri ahal diren besteek ikus ditzaten eta post-itak erabiliz emotikonoak edo iritziak utz ditzaten.

IDATZI ZURE IRITZIA ETA
ITSATSI PANTAILAN EDO
BIDALI GURE TELEFONO-
POSTONTZIAREN BIDEZ.



ENTZUTEKO MODUAREN TESTA IKASLEAK

Ikastetxea: _____

Nola definitzen zara?: ☐ mutila ☐ neska ☐ besteak ☐ nahiago dut ez definitzea

Zenbat urte dituzu?: _____

Entzute Klubeko kidea zara?: ☐ bai ☐ ez

Zk.	GALDERA	ERANTZUN BAT AUKERATU
1	Norbaitek interesatzen ez zaizun zerbait kontatzen badizu... zure buruak deskonektatu egiten du momenturen batean zure gauzetan pentsatzeko.	☐ INOIZ EZ ☐ BATZUETAN ☐ ASKOTAN ☐ BETI ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN
2	Norbaitek zerbait esan nahi dizula, baina ez dela ausartzen nabaritzen baduzu, lagundu egiten diozu konfiantzaz hitz egin dezan.	☐ INOIZ EZ ☐ BATZUETAN ☐ ASKOTAN ☐ BETI ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN
3	Pertsona baten ahotsaren tonuak eta gorputz-mugimenduek, oro har, haren hitzek baino gehiago esaten dizutela uste duzu.	☐ INOIZ EZ ☐ BATZUETAN ☐ ASKOTAN ☐ BETI ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN
4	Norbaitek arrazoirik ez duela edo oker dabilela uste baduzu, hitza kentzen diozu zure ikuspuntua adierazteko eta konbentzitzen saiatzeko.	☐ INOIZ EZ ☐ BATZUETAN ☐ ASKOTAN ☐ BETI ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN
5	Norbaitek adierazi nahi duena ez baduzu oso ondo ulertzen, galderak egiten dizkiozu ulertu arte.	☐ INOIZ EZ ☐ BATZUETAN ☐ ASKOTAN ☐ BETI ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN
6	Norbaitek gustuko ez duzun zerbait badio, "belarri batetik sartu eta bestetik irten" pentsatzen duzu.	☐ INOIZ EZ ☐ BATZUETAN ☐ ASKOTAN ☐ BETI ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN
7	Oso haserre dagoen norbaitekin hitz egiten duzunean, onena hari entzutea dela uste duzu, hustu eta lasaitu dadin.	☐ INOIZ EZ ☐ BATZUETAN ☐ ASKOTAN ☐ BETI ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN
8	Norbaiti entzuten ari zarenean, hark amaitu baino lehen zure erantzuna emanaz aurrea hartzen diozu.	☐ INOIZ EZ ☐ BATZUETAN ☐ ASKOTAN ☐ BETI ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN
9	Solasaldi bateko gaia kontrolatuz gero, parte hartzen duzu bertan; bestela, ez.	☐ INOIZ EZ ☐ BATZUETAN ☐ ASKOTAN ☐ BETI ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN
10	Norbaiti entzuten ari zarenean, honelako espresioak erabiltzen dituzu, besteak beste: nolatan!, ederkil!, ados!, ulertzen dut!, um! Horrela, arretaz entzuten ari zarela eta haren lekuan jartzen zarela adierazi nahi diozu.	☐ INOIZ EZ ☐ BATZUETAN ☐ ASKOTAN ☐ BETI ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN
11	Modu negatiboan eragiten dizuten zenbait hitz eta gairen aurrean zakarki erantzuten duzu.	☐ INOIZ EZ ☐ BATZUETAN ☐ ASKOTAN ☐ BETI ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN
12	Kostatu egiten zaizu irakasleek zuri hitz egitean esan nahi dutena ulertzea.	☐ INOIZ EZ ☐ BATZUETAN ☐ ASKOTAN ☐ BETI ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN
13	Ikastetxeko adiskideren batekin zure ideiei, sentimenduei edo arazoei buruz hitz egiteko askatasuna eta konfiantza dituzula sentitzen duzu.	☐ INOIZ EZ ☐ BATZUETAN ☐ ASKOTAN ☐ BETI ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN
14	Irakasleekin zure ideiei, sentimenduei edo arazoei buruz hitz egiteko askatasuna eta konfiantza dituzula sentitzen duzu.	☐ INOIZ EZ ☐ BATZUETAN ☐ ASKOTAN ☐ BETI ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN
15	Zure familiarekin zure ideiei, sentimenduei edo arazoei buruz hitz egiteko askatasuna eta konfiantza dituzula sentitzen duzu.	☐ INOIZ EZ ☐ BATZUETAN ☐ ASKOTAN ☐ BETI ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN
16	Adiskideei arretaz entzun eta gero, iritiz aldatu duzu eta oker zeundela ikusi duzu.	☐ INOIZ EZ ☐ BATZUETAN ☐ ASKOTAN ☐ BETI ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN
17	Adiskideak balioesten ikasi duzu talde lanean haien ideiak entzunez.	☐ INOIZ EZ ☐ BATZUETAN ☐ ASKOTAN ☐ BETI ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN
18	Ikastetxeko elkarrizketa prozesuren batean (batzarra, bilera, etab.) parte hartzeak garrantzitsua zarela sentiarazi dizu.	☐ INOIZ EZ ☐ BATZUETAN ☐ ASKOTAN ☐ BETI ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN

19	Besteei modu aktiboan entzuteak eragina izan du zugar: zure gauzekin ohartu zara eta zeure burua hobeto ezagutu duzu.		☐ INOIZ EZ	☐ BATZUETAN	☐ ASKOTAN
20	Adiskide bati entzutean, hark esandakoa aztertzen saiatzen zara eta ez zaizu axola zein diren haren jatorria, erlijioa, kultura-nortasuna edo funtzio-dibertsitatea.		☐ INOIZ EZ	☐ BATZUETAN	☐ ASKOTAN
21	Adiskide bati entzutean, hark esandakoa aztertzen saiatzen zara eta ez zaizu axola haren sexu-joera.		☐ INOIZ EZ	☐ BATZUETAN	☐ ASKOTAN
22	Adiskideekin hitz egitean, haiek zure iritzia behar dutela sentitzen duzu, esperientzia gehiago baituzu eta arrazoia eduki ohi duzu.		☐ INOIZ EZ	☐ BATZUETAN	☐ ASKOTAN
23	Adinez nagusiagoak diren ikasleak ikasle gazteagoak baino hobeto sentitzen direla uste duzu.		☐ INOIZ EZ	☐ BATZUETAN	☐ ASKOTAN
24	Zure etnia-jatorria, gizarte-klasea, erlijioa edo funtzio-dibertsitatea direla eta, ikastetxean ez zaituztela aintzat hartu sentitu izan duzu.		☐ INOIZ EZ	☐ BATZUETAN	☐ ASKOTAN
25	Ikastetxean arretaz entzun izan dizutela eta zure ideiek ekintza garrantzitsuak abiarazi dituztela sentitu izan duzu.		☐ INOIZ EZ	☐ BATZUETAN	☐ ASKOTAN
26	Irakasleek ikasleei modu aktiboan entzuteko eta haiekin hitz egiteko prestakuntza behar dutela uste duzu.		☐ INOIZ EZ	☐ BATZUETAN	☐ ASKOTAN
27	Zure ustez, zerk oztopatzen du pertsona heldu batek ikasleei entzutea?	Ikastetxeko zarata-maila.	☐ INOIZ EZ	☐ BATZUETAN	☐ ASKOTAN
28		Hizketan egiteko denbora falta (irakasleek garrantzi gehiago ematen dietelako gaien curriculumeko edukiei).	☐ INOIZ EZ	☐ BATZUETAN	☐ ASKOTAN
29		Ikasleek ez dute interesik hizketan egiteko.	☐ INOIZ EZ	☐ BATZUETAN	☐ ASKOTAN
30		Pertsona helduek beti arrazoia dutela uste dute eta ikasleak heldugabetzat eta ezgaitzat hartzen dituzte.	☐ INOIZ EZ	☐ BATZUETAN	☐ ASKOTAN
31		Pertsona helduak oso lanpetuta daude.	☐ INOIZ EZ	☐ BATZUETAN	☐ ASKOTAN
32		Pertsona helduei ez zaizkie ikasleen iritziak interesatzen.	☐ INOIZ EZ	☐ BATZUETAN	☐ ASKOTAN
33	Ikastetxean arazoren bat dagoenean, inplikaturako pertsonak eta lekukoak izan direnak biltzen dituzten bilerak antolatzen dira, zer gertatu den eta nola sentitu diren entzuteko. Biler horietan, pertsona guztiak errespetu, enpatia eta espresatzeko aukera berekin tratatzen dira.		☐ INOIZ EZ	☐ BATZUETAN	☐ ASKOTAN
34	Ikastetxean zer mailatan entzuten zaituztela sentitzen duzu?	Irakasleek, oro har:	☐ INOIZ EZ	☐ BATZUETAN	☐ ASKOTAN
35		Zuzendaritzak:	☐ INOIZ EZ	☐ BATZUETAN	☐ ASKOTAN
36		Hezkuntzako laguntzaileak (jangelako edo ludotekako begiraleak, etab.):	☐ INOIZ EZ	☐ BATZUETAN	☐ ASKOTAN
37		Nire adiskideek, oro har:	☐ INOIZ EZ	☐ BATZUETAN	☐ ASKOTAN
38	Zure iritzia aintzat hartzen dela eta zure ikastetxeko arazoak konpontzeko ekintzak abiarazteko lagundu ahal duzula sentitzen duzu.		☐ INOIZ EZ	☐ BATZUETAN	☐ ASKOTAN
39	Zure ikastetxean badaude zuri eta besteei entzuteko lekuak eta uneak (batzarrak, bilerak, topaketak, entzuteko pertsonak edo taldeak, etab.).		☐ INOIZ EZ	☐ BATZUETAN	☐ ASKOTAN
40	Zure adineko neska-mutikoei zure auzoari, herriari edo hiriari eragiten dieten gaiei buruzko proposamenetan parte hartzeko interesa dutela uste duzu.		☐ INOIZ EZ	☐ BATZUETAN	☐ ASKOTAN

Ideiak, burutapenak, azalpenak, sentsazioak... adierazi nahi badituzu, ikastetxeko Entzuteko Postontzian parteka itzazu batere zalantzarik gabe.

ESKERRIK ASKO!

ENTZUTEKO MODUAREN TESTA IRAKASLEAK

Ikastetxea: _____

Testa egiten duen pertsona talde honetan sartzen da:

☐ Zuzendaritza ☐ Irakasleak ☐ Irakasleak ez diren langileak. Zehaztu: _____

Testa egiten duen pertsona:

☐ gizona ☐ emakumea ☐ besteak ☐ nahiago dut ez definitzea
Zenbat urte dituzu?: _____ Entzute Klubeko kidea zara?: ☐ bai ☐ ez

Zk.	GALDERA	ERANTZUN BAT AUKERATU
1	Norbaitek interesatzen ez zaizun zerbait kontatzen badizu... zure buruak deskonektatu egiten du momenturen batean zure gauzetan pentsatzeko.	☐ INOIZ EZ ☐ BATZUETAN ☐ ASKOTAN ☐ BETI ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN
2	Norbaitek zerbait esan nahi dizula, baina ez dela ausartzen nabaritzen baduzu, lagundu egiten diozu konfiantzaz hitz egin dezan.	☐ INOIZ EZ ☐ BATZUETAN ☐ ASKOTAN ☐ BETI ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN
3	Pertsona baten ahotsaren tonuak eta gorputz-mugimenduek, oro har, haren hitzek baino gehiago esaten dizutela uste duzu.	☐ INOIZ EZ ☐ BATZUETAN ☐ ASKOTAN ☐ BETI ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN
4	Norbaitek arrazoirik ez duela edo oker dabilela uste baduzu, hitza kentzen diozu zure ikuspuntua adierazteko eta konbentzitzen saiatzeko.	☐ INOIZ EZ ☐ BATZUETAN ☐ ASKOTAN ☐ BETI ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN
5	Norbaitek adierazi nahi dizuna ez baduzu oso ondo ulertzen, galderak egiten dizkiozu ulertu arte.	☐ INOIZ EZ ☐ BATZUETAN ☐ ASKOTAN ☐ BETI ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN
6	Norbaitek gustuko ez duzun zerbait badio, "belarri batetik sartu eta bestetik irten" pentsatzen duzu.	☐ INOIZ EZ ☐ BATZUETAN ☐ ASKOTAN ☐ BETI ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN
7	Oso haserre dagoen norbaitekin hitz egiten duzunean, onena hari entzutea dela uste duzu, hustu eta lasaitu dadin.	☐ INOIZ EZ ☐ BATZUETAN ☐ ASKOTAN ☐ BETI ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN
8	Norbaiti entzuten ari zarenean, hark amaitu baino lehen zure erantzuna emanez aurea hartzen diozu.	☐ INOIZ EZ ☐ BATZUETAN ☐ ASKOTAN ☐ BETI ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN
9	Solasaldi bateko gaia kontrolatuz gero, parte hartzen duzu bertan; bestela, ez.	☐ INOIZ EZ ☐ BATZUETAN ☐ ASKOTAN ☐ BETI ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN
10	Norbaiti entzuten ari zarenean, honelako espresioak erabiltzen dituzu, besteak beste: nolatan!, ederkil!, ados!, ulertzen dut!, um! Horrela, arretaz entzuten ari zarela eta haren lekuan jartzen zarela adierazi nahi diozu.	☐ INOIZ EZ ☐ BATZUETAN ☐ ASKOTAN ☐ BETI ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN
11	Modu negatiboan eragiten dizuten zenbait hitz eta gairen aurrean zakarki erantzuten duzu.	☐ INOIZ EZ ☐ BATZUETAN ☐ ASKOTAN ☐ BETI ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN
12	Kostatu egiten zaizu ikasleek zuri hitz egitean esan nahi dutena ulertzea.	☐ INOIZ EZ ☐ BATZUETAN ☐ ASKOTAN ☐ BETI ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN
13	Ikastetxeko adiskideren batekin zure ideiei, sentimenduei edo arazoei buruz hitz egiteko askatasuna eta konfiantza dituzula sentitzen duzu.	☐ INOIZ EZ ☐ BATZUETAN ☐ ASKOTAN ☐ BETI ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN
14	Ikasleekin zure ideiei, sentimenduei edo arazoei buruz hitz egiteko askatasuna eta konfiantza dituzula sentitzen duzu.	☐ INOIZ EZ ☐ BATZUETAN ☐ ASKOTAN ☐ BETI ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN
15	Familiekin zure ideiei, sentimenduei edo arazoei buruz hitz egiteko askatasuna eta konfiantza dituzula sentitzen duzu.	☐ INOIZ EZ ☐ BATZUETAN ☐ ASKOTAN ☐ BETI ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN
16	Ikasleei arretaz entzun eta gero, iritzi aldatu duzu eta oker zeundela ikusi duzu.	☐ INOIZ EZ ☐ BATZUETAN ☐ ASKOTAN ☐ BETI ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN
17	Ikasleak balioesten ikasi duzu haien ideiak entzunez.	☐ INOIZ EZ ☐ BATZUETAN ☐ ASKOTAN ☐ BETI ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN

18	Ikasleei modu aktiboan entzuteak eragina izan du zugar: zure gauzekin ohartu zara eta zeure burua hobeto ezagutu duzu.		☐ INOIZ EZ ☐ BETI	☐ BATZUETAN ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN	☐ ASKOTAN
19	Ikasleen ideiak edo proposamenak entzundakoan, ulertu duzuna azaltzen diezu ea esan nahi zizutena ongi interpretatu duzun ikusteko.		☐ INOIZ EZ ☐ BETI	☐ BATZUETAN ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN	☐ ASKOTAN
20	Ikasleei entzutean, haiek esandakoa aztertzen saiatzen zara eta kulturari, erlijioari, ideologiari eta abarri buruzko klixe edo estereotipoek ez dizute eragiten.		☐ INOIZ EZ ☐ BETI	☐ BATZUETAN ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN	☐ ASKOTAN
21	Ikasleei entzutean, haiek esandakoa aztertzen duzu eta generoarekin lotutako klixe edo estereotipoek ez dizute eragiten.		☐ INOIZ EZ ☐ BETI	☐ BATZUETAN ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN	☐ ASKOTAN
22	Ikasleek zure iritzia behar dutela sentitzen duzu, esperientzia gehiago baituzu eta arrazoa eduki ohi duzu.		☐ INOIZ EZ ☐ BETI	☐ BATZUETAN ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN	☐ ASKOTAN
23	Ikasleekin hitz egitean, haiek konbentzitzen saiatzen zara, zuk baitakizu zer den haientzako onena.		☐ INOIZ EZ ☐ BETI	☐ BATZUETAN ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN	☐ ASKOTAN
24	Etnia, gizarte-klasea, erlijioa edo funtzio-dibertsitatea direla eta, ikastetxean ikasle guztiak ez direla modu berean aintzat hartzen sentitu izan duzu.		☐ INOIZ EZ ☐ BETI	☐ BATZUETAN ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN	☐ ASKOTAN
25	Ikastetxean arretaz entzun izan dizutela eta zure ideiek ekintza garrantzitsuak abiarazi dituztela sentitu izan duzu.		☐ INOIZ EZ ☐ BETI	☐ BATZUETAN ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN	☐ ASKOTAN
26	Irakasleek ikasleei modu aktiboan entzuteko eta haiekin hitz egiteko prestakuntza behar dutela uste duzu.		☐ INOIZ EZ ☐ BETI	☐ BATZUETAN ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN	☐ ASKOTAN
27	Zure ustez, zerk oztokatzen du pertsona heldu batek ikasleei entzutea?	Ikastetxeko zarata-maila.	☐ INOIZ EZ ☐ BETI	☐ BATZUETAN ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN	☐ ASKOTAN
28		Hizketan egiteko denbora falta (gaien curriculumeko edukiak beti garrantzitsuagoak direlako).	☐ INOIZ EZ ☐ BETI	☐ BATZUETAN ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN	☐ ASKOTAN
29		Ikasleek ez dute interesik hizketan egiteko.	☐ INOIZ EZ ☐ BETI	☐ BATZUETAN ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN	☐ ASKOTAN
30		Pertsona helduek beti arrazoa dutela uste dute eta ikasleak heldugabetzat eta ezgaitzat hartzen dituzte.	☐ INOIZ EZ ☐ BETI	☐ BATZUETAN ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN	☐ ASKOTAN
31		Pertsona helduak oso lanpetuta daude.	☐ INOIZ EZ ☐ BETI	☐ BATZUETAN ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN	☐ ASKOTAN
32		Pertsona helduei ez zaizkie ikasleen iritzia interesatzen.	☐ INOIZ EZ ☐ BETI	☐ BATZUETAN ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN	☐ ASKOTAN
33	Ikastetxean arazoren bat dagoenean, inplikaturako pertsonak eta lekukoak izan direnak biltzen dituzten bilerak antolatzen dira, zer gertatu den eta nola sentitu diren entzuteko. Biler horietan, pertsona guztiak errespetu, enpatia eta espresatzeko aukera berekin tratatzen dira.		☐ INOIZ EZ ☐ BETI	☐ BATZUETAN ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN	☐ ASKOTAN
34	Ikastetxean ikasleak zer mailatan entzuten dituztela uste duzu?	Irakasleek, oro har:	☐ INOIZ EZ ☐ BETI	☐ BATZUETAN ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN	☐ ASKOTAN
35		Zuzendaritzak:	☐ INOIZ EZ ☐ BETI	☐ BATZUETAN ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN	☐ ASKOTAN
36		Hezkuntzako laguntzaileek (jangelako edo ludotekako begiraleak, etab.):	☐ INOIZ EZ ☐ BETI	☐ BATZUETAN ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN	☐ ASKOTAN
37		Beren adiskideek, oro har:	☐ INOIZ EZ ☐ BETI	☐ BATZUETAN ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN	☐ ASKOTAN
38	Ikastetxeko arazoak konpontzeko erabakiak hartzerakoan eta ekintzak abiarazterakoan ikasleek parte hartzen dutela uste duzu.		☐ INOIZ EZ ☐ BETI	☐ BATZUETAN ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN	☐ ASKOTAN
39	Ikastetxean badaude ikasleei entzuteko lekuak eta uneak (batzarrak, bilerak, topaketak, entzuteko pertsonak edo taldeak, etab.).		☐ INOIZ EZ ☐ BETI	☐ BATZUETAN ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN	☐ ASKOTAN
40	Neska-mutikoez beren auzoari, herriari edo hiriari eragiten dieten gaiei buruzko proposamenetan parte hartzeko interesa dutela uste duzu.		☐ INOIZ EZ ☐ BETI	☐ BATZUETAN ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN	☐ ASKOTAN

Ideiak, burutapenak, azalpenak, sentsazioak... adierazi nahi badituzu, ikastetxeko Entzuteko Postontzian parteka itzazu batere zalantzarik gabe.

ESKERRIK ASKO!

ENTZUTEKO MODUAREN TESTA FAMILIAK

Ikastetxea: _____

Testa egiten duen pertsona: ☐ gizona ☐ emakumea ☐ besteak ☐ nahiago dut ez definitzeaZenbat urte dituzu?*: _____ Entzute Klubeko kidea zara?: ☐ bai ☐ ez

*Oharra: test honetan semeari edo alabari buruz galdetzen da, baina beste kasu batzuk ere aipatzen dira, hala nola zure tutoretza pekoak diren adin txikiko neska-mutikoak.

Zk.	GALDERA	ERANTZUN BAT AUKERATU
1	Semeak edo alabak zerbait esan nahi dizula, baina ez dela ausartzen nabaritzen baduzu, lagundu egiten diozu konfiantzaz hitz egin dezan.	☐ INOIZ EZ ☐ BATZUETAN ☐ ASKOTAN ☐ BETI ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN
2	Semearen edo alabaren ahotsaren tonuak eta gorputz-mugimenduek, oro har, haren hitzek baino gehiago esaten dizutela uste duzu.	☐ INOIZ EZ ☐ BATZUETAN ☐ ASKOTAN ☐ BETI ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN
3	Zure semea edo alaba oso haserre badago, onena hari entzutea dela uste duzu, hustu eta lasaitu dadin.	☐ INOIZ EZ ☐ BATZUETAN ☐ ASKOTAN ☐ BETI ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN
4	Semeari edo alabari entzuten ari zarenean, hark amaitu baino lehen zure erantzuna eman ez aurrea hartzen diozu.	☐ INOIZ EZ ☐ BATZUETAN ☐ ASKOTAN ☐ BETI ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN
5	Entzuten ari zarenean, honelako espresioak erabiltzen dituzu: nolatan!, ederkil!, ados!, ulertzen dut!, um! Horrela, arretaz entzuten ari zarela eta haren lekuan jartzen zarela adierazi nahi diozu.	☐ INOIZ EZ ☐ BATZUETAN ☐ ASKOTAN ☐ BETI ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN
6	Kostatu egiten zaizu semeak edo alabak zuri hitz egitean esan nahi dizuna ulertzea.	☐ INOIZ EZ ☐ BATZUETAN ☐ ASKOTAN ☐ BETI ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN
7	Gauza berriak ikasi dituzu semeari edo alabari entzunez.	☐ INOIZ EZ ☐ BATZUETAN ☐ ASKOTAN ☐ BETI ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN
8	Semeari edo alabari modu aktiboan entzuteak eragina izan du zuegan: zure gauzekin ohartu zara eta zeure burua hobeto ezagutu duzu.	☐ INOIZ EZ ☐ BATZUETAN ☐ ASKOTAN ☐ BETI ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN
9	Semeari edo alabari entzutean, esaten dizuna aztertzen duzu eta haren generoari buruzko klixe edo estereotipoek ez dizute eragiten (mutila, neska, homosexuala... izatea).	☐ INOIZ EZ ☐ BATZUETAN ☐ ASKOTAN ☐ BETI ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN
10	Semeak edo alabak zure iritzia behar duela sentitzen duzu, esperientzia gehiago baituzu eta arrazoia eduki ohi duzu.	☐ INOIZ EZ ☐ BATZUETAN ☐ ASKOTAN ☐ BETI ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN
11	Semearekin edo alabarekin hitz egitean, hura konbentzitzen saiatzen zara, zuk baitakizu zer den onena.	☐ INOIZ EZ ☐ BATZUETAN ☐ ASKOTAN ☐ BETI ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN
12	Etnia-jatorria, gizarte-klasea, erlijioa edo funtzio-dibertsitatea direla eta, ikastetxean ikasle guztiak ez direla modu berean aintzat hartzen sentitu izan duzu.	☐ INOIZ EZ ☐ BATZUETAN ☐ ASKOTAN ☐ BETI ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN
13	Ikastetxean ekintza garrantzitsuak abiarazteko familien ideiak aintzat hartu direla sentitu izan duzu.	☐ INOIZ EZ ☐ BATZUETAN ☐ ASKOTAN ☐ BETI ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN
14	Irakasleek ikasleekin eta familiekin hitz egiteko prestakuntza behar dutela uste duzu.	☐ INOIZ EZ ☐ BATZUETAN ☐ ASKOTAN ☐ BETI ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN
15	Ikastetxean arazoren bat dagoenean, inplikaturako pertsonak eta lekukoak izan direnak biltzen dituzten bilerak antolatzen dira, zer gertatu den eta nola sentitu diren entzuteko. Bilera horietan, pertsona guztiak errespetu, enpatia eta espresatzeko aukera berekin tratatzen dira.	☐ INOIZ EZ ☐ BATZUETAN ☐ ASKOTAN ☐ BETI ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN
16	Ikastetxeko arazoak konpontzeko erabakiak hartzerakoan eta ekintzak abiarazterakoan ikasleek parte hartzen dutela uste duzu.	☐ INOIZ EZ ☐ BATZUETAN ☐ ASKOTAN ☐ BETI ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN
17	Ikastetxean badaude familiei entzuteko lekuak eta uneak (batzarrak, bilerak, topaketak, entzuteko pertsonak edo taldeak, etab.).	☐ INOIZ EZ ☐ BATZUETAN ☐ ASKOTAN ☐ BETI ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN
18	Neska-mutikoek beren auzoari, herriari edo hiriari eragiten dieten gaiei buruzko proposamenetan parte hartzeko interesa dutela uste duzu.	☐ INOIZ EZ ☐ BATZUETAN ☐ ASKOTAN ☐ BETI ☐ EZ DUT GALDERA ULERTZEN

Ideiak, burutapenak, azalpenak, sentsazioak... adierazi nahi badituzu, ikastetxeko Entzuteko Postontzian parteka itzazu batere zalantzarik gabe.

ESKERRIK ASKO!

AMESTEN AUSARTZEN ZARA? ... BA HAS GAITEZEN!

DIAGNOSIAREN EMAITZAK

EMAITZA POSITIBOAK (Indarguneak)

KONPONDU BEHARREKO ARAZOAK (Erronkak)

GURE HEZKUNTZA-KOMUNITATEAN ENTZUTE AKTIBOA HOBETZEKO EKINTZA ERRAZEN PROPOSAMENAK:

(Arretaz Entzun gidan proposatutako ideiak begira ditzakezue)

**NOLAKOA DA AMESTEN
DUGUN ENTZUTE-
KOMUNITATEA?:**


NOLA ANTOLATUKO GARA?

(Arretaz Entzun kiteko 6. fitxako taula erabil dezakezue)

Testu idatzien bidez entzun diezaguten,
batzuetan idatzi baino zerbait gehiago egin behar da

FANZINE BAT EGITEA: TESTU IDATZIEK BIDEZ HITZ EGITEKO

Irudikatu ez dagoela Internetik, papera eta bolalumak soilik dituzuela. Material hori bakarrik erabiliz, zuen ideiak munduarekin parteka ditzakezue eta entzunak izan ahal zarete sormenezko modu baten bidez. Fanzine bat eginez lor dezakezue hori, hau da, zuen ideietatik eta baliabideetatik abiatuz sortutako argitalpena eginez.




Arretaz Entzun kanpainen transmititzeko ideien eta mezuen aukeraketa. Zuen oharrak, ideiak, sentimenduak, diagnosi baten emaitzak, aurkitutako arazoak eta abar izan daitezke.



Edukia sortzeko testuen eta irudi grafikoek aukeraketa. Idatzi, errotulatu, marraztu, moztu letrak edo aldizkarietako argazkiak. Eskuliburuaren formatua baldin badauka, hainbat materialekin (plastikoak, purpurina, sokak, etab.) edo teknika zehatzekin (*pop-up*, adibidez) efektuak diseina ditzakezue.

Fanzineak antolatuzeko formatua aukeratzea. Pentsatu ea zenbat orrialde izango dituen, tolesturak, amaierako tamaina...



Fanzineak inprimatzea eta muntatzea. Ohiko fanzineak, aldizkariak adibidez, inprimatzeko beharrezkoa da orrialdeak nola ordenatuko diren kontuan izatea; A4 tamainako orriz osatuta badaude, orriak tolestu egingo dira A5 tamainako orriak sortzeko. Tolesteko formatuak, pertsonalizatuak, originalak... ere egin daitezke. Muntatu aurretik, behar diren fotokopiak egin. Behin fanzineak muntatutakoan, fotokopiatu ezin diren eta eskuz egin behar diren efektu bereziak jarri ahal dizkiezue.

Banaketa. Egindako fanzineak ikastetxeko sarreran banatu daitezke, banaketarako gune zehatz batean utzi, aukeratutako pertsona edo taldeei bidali, etab. Horiek erakusteko azoka bat ere antola daiteke eta... zergatik ez, saldu ere egin daitezke gastuak berreskuratzeko edo arrazoi on baterako dirua lortzeko. Kasu horretan, taldean erabaki nola antolatuko duzuen (denbora, lekua, beharrezko baliabideak, salmenta-prezioa, irabaziak nora bideratuko diren, etab.).

Identifika dezagun zer ikasi dugun entzutearen bidez.
Oraindik ere egiteko daukaguna

ENTZUTEA ERREGISTRATZEA: ENTZUTE-JARRERA

Zein da zuen eginkizuna lan-saio batean akta jasotzeko?
Honako lau kontu hauek aztertzeko pertsona bat edo bi
arduratzeko proposatzen da:



DENBORA. Pertsona bakoitzak hitz egiten duen denbora baloratzeko. Adibidez, nork hitz egiten duen gehien edo gutxien, mutilak ala neskak diren, ikasleak ala pertsona helduak (irakasleak, familiak, etab.) diren, ezaugarri bereziren bat al duten ala ez, esaterako: ordezkariak edo zuzendaritzakoak al diren edo partaidetzako, maila zehatzen bateko edo autoritate talderen batekoak al diren.



GORPUTZA ETA EMOZIOAK. Taldean gailentzen diren emozioak gogoan hartzen dira, emozio horiek nola aldatzen diren eta zein pertsona edo edukirekin lotuta dauden aztertuz. Gorputzaren espresioak nolakoak diren iker daiteke. Adibidez, ea pertsonak beren gorputz-espresioen bitartez adi, aspertuta, kontzentrazio gutxiarekin, nekatuta, haserre, gogotsu, etab. ikusten diren.



HIZKERA. Helduzentrismoa, genero kontuak, errespetu faltak, hainbat kultura dibertsitate aintzat hartzen dituen hizkera... antzematea. Parte hartzaileen tonua eta intentsitatea nola doan aldatzen eta zein pertsona edo edukirekin lotuta dauden ere azter daiteke.



IDEIAK. Partekatzen diren ideia desberdinen kopurua baloratzeko. Esate baterako, bileran eta jardueran gai baten inguruan bakarrik hitz egin al den, behin eta berriro gauza berari bueltak emanez, edo, alderantziz, hainbat ikuspuntu eman al diren, ideia berriak eraikiz talde guztia artean, etab.

Oharrak idazteko taularen adibidea:

Bildutako pertsonak 15 minutu → 15 minutu → 15 minutu → 15 minutu → 15 minutu

IKASLEAK:					
IRAKASLEAK:					
FAMILIAK:					
BESTEAK:					

Saioaren amaieran bildutako emaitzei buruz hitz egin ahal da, horiek baloratzeko eta etorkizuneko ekintzetan entzutea hobetzeko ideiak proposatzeko eta/edo hurrengo topaketetarako funtzionamendu arauak adierazteko.

ZER HOBEKUNTZA LORTU DITUGU DENBORA HONETAN?

Arretaz Entzun kanpainarekin lortu diren aldaketa eta eraldaketa posibleak ikusteko, Entzuteko moduaren testa (14., 15. eta 16. fitxak) berriro egitera bultzatzen zaituztegu. Jarduerak egin aurretik emandako erantzunak eta haiek burututakoan emandakoak alderatu eta baloratu aldaketa posibleak iruditxoaren bitartez: emaitzak hobetu edo txartu egin diren, ala berdin jarraitzen duten. Horrela, modu bisualean, emaitzak aztertu ahalko dituzue.

Entzuteko moduaren testaren lehen data (jarduerak egin aurretik):

Entzuteko moduaren testaren bigarren data (jarduerak egin ondoren):

Testaren talde hartzailea:

Emaitzak generoaren, adinaren... arabera ordenatuta (zehaztu):

Zk.	Kanpaina egin aurretiko gehientsuen emaitza	Kanpaina egin ondorengo gehientsuen emaitza	Aldaketarik badago?	Oharrak, iradokizunak, azalpen posibleak, etorkizunerako proposamenak, etab. (Beste talde hartzaileen erantzunekin alderaketak)
1			↑○ ↓○	
2			↑○ ↓○	
3			↑○ ↓○	
4			↑○ ↓○	
5			↑○ ↓○	
6			↑○ ↓○	
7			↑○ ↓○	
8			↑○ ↓○	
9			↑○ ↓○	
10			↑○ ↓○	

11			↑○ ↓○	
12			↑○ ↓○	
13			↑○ ↓○	
14			↑○ ↓○	
15			↑○ ↓○	
16			↑○ ↓○	
17			↑○ ↓○	
18			↑○ ↓○	
19			↑○ ↓○	
20			↑○ ↓○	
21			↑○ ↓○	
22			↑○ ↓○	
23			↑○ ↓○	
24			↑○ ↓○	
25			↑○ ↓○	
26			↑○ ↓○	
25			↑○ ↓○	
28			↑○ ↓○	
29			↑○ ↓○	
30			↑○ ↓○	

Eta zuk, arretaz entzuten duzu?

Informazio gehiagorako:

info@activalaescucha.org www.activalaescucha.org